

Enplegu Publikoaren Lege Egitasmoa

EZ GAITZATELA ZAPALDU!



Eusko Jaurilaritzak Enplegu Publikoaren Lege Egitasmoa aurkeztu berri du zerbitzu publikoetan inoiz ez bezalako murrizketak burutzen ari den une berean. Aurrekontu murrizketa, Madril-i jarraipena, eta negoziazio eskubidea ukatzeak milaka lanpostuen galera eta lan baldintzen okertze larria ekarri du, jendartearentzat funtsezkoak diren zerbitzuak arriskuan jarritz.

Lege egitasmo honek uko egiten dio euskal lege bat garatzeari eta berea egiten du estatukoa. Baiezta dezakegu, lege-egitasmo hau aurreko legealdian PSEK aurkeztu zuen lege egitasmoaren, eta bere garaian EAJ-k onartzen ez zuenaren, kopia bat dela.

LEGE EGITASMOAREN EZAUGARRIAK:

1.- Estatuarekiko erabateko menpekotasuna.

- EBEP-aren garapen soila da (Espainiako gobernuak eta CCOO, UGT eta CSIF sindikatuak adostutakoa).
- Estatuko oinarritzko legediari men egiten dion lege egitasmoa.
- Uko egiten dio euskal esparru propioari.

2.- Administrazioaren arbitrariotasuna, zerbitzu publiko independentearen aurka.

- Zuzendaritza publikoaren figura ezartzen da. Politikarien nahia arlo bakoitzean gauzatzeko arduradunak izango dira. Figura hau funtsezkoa izango da enplegatu publikoen jarduna baldintzatzeke. Beraiek egindako txostenak enplegatu publikoen lan kondizioak erabaki bait dezakete.
- Lansari aldakorra bultzatzen da, garapen profesionalari lotuta, langile otzanak izateko. Oinarritzko sistema eta sistema osagarria mantentzen dira, baina kopuruak gutxiagotzeko aurreikuspena dago, garapen osagarri berri baten trukean; eta osagarri berri hori zuzendarien ebaluazioaren baitan egongo da, administrazioaren irizpide subjektiboaren menpean, alegia.

3.- Enplegu publikoan lan erreforma.

- Pribatizazioari ez zaio mugarik jartzen.
- Nahitaezko eszedentziak, soldata eta jardunaldi murrizketak, mugikortasun geografikoak eta funtzionalak ezartzen dira.

- Behin behinekotasuna, mugarik gabe. Ez dira formulak edo tresnarik ezartzen postu estruktural guztiak langile finkoe-kin betetzeko. Enplegua finkatzeko eta EPERik ateratzeko betebeharrak ez dago. Administrazioarako sarbide-sistema ez da erregulatzen.

4.- Negoziazio kolektiborako eskubiderik gabe.

- Soldata, jardunaldia eta lizentziak estatu espinariaren menpe.
- Administrazioak lan baldintzak alde bakarretik erabakitzeko ahalmena dauka eta akordio posibleak ez betetzea aurrakusten da.
- Gobernuak eta parlamentuak lan baldintzak inposatu ditzakete.
- Ez ohiko ordainsaria, ordainsari osagarri izatera pasako litzateke, ordainsaria bertan behera uztea erraztuz.
- Aldi baterako langileek, behin betiko langileak baino soldata urriagoak izatea ahalbidetuko luke.

5.- Orain arte zeuden partehartzeko aukera urriak ezabatzen ditu, bai sindikatuak, bai langileagoari eta baita gizarteari ere.

6.- Lege egitasmo honek EAEko sektore publikoa osatzen duen langilego guztia biltzeari uko egiten dio.

7.- Zerbitzu publikoak eta bertan diharduten langileak euskalduntzeko apusturik ez.

GELDITU BEHAR DITUGU!



■ ELA-REN PROPOSAMENA

ELAk nahi duen administrazioa

bertakoa, euskalduna, independentea, gizarte-kontrolaren pekoa, eta herritarren beharrian sozialak zuzenean betetzeko prest dagoena da.

1.- Parte hartzeari irekia den administrazio bat, deszentralizatua eta herritarren zerbitzura.

- Administrazioa herritarren parte hartzeari irekita gizartearen beharriaz eta eskariei egokitua.
- Administrazio deszentralizatua eta beharrian zehazketara egokitua.
- “Euskal sektore publikoa”-ren pribatizazioa eragotziko duena, eta pribatizatuak izan direnak berreskuratzea ahalbideratuko duena. Administrazioak zuzenean eskainiko lizkieke herritarrei oinarritzko zerbitzuak, herri-onura diru-etekinen aurretik doala ziurtatuz.

2.- EAEko esparru publiko guztiak barne hartzen dituen legea, gaur egun estatuko esparruan daudenak ere barne.

3.- Herritarrentzat funtsezkoak diren kalitatezko zerbitzuak emateko helburuarekin lan-baldintza duinak, mugikortasun eza eta independentzia printzipioak barneratuko dituen.

4.- Negoziazio kolektiborako benetako eskubidea.

- Negoziazio eskubidea onartuko duen benetako legea.
- Aldebakarreko erabakirik gabe, injerentziarik onartzen ez duena.
- Joko arau demokratikoak onartzen dituenak, berdintasunetik berdintasunera egiten den negoziazio kolektiboa.

5.- Enplegua.

- Lege honekin funtzio publikoa herri langileekin egingo dela ziurtatu behar da.
- Enplegu publikoa sustatu beharko lukeena, EB ko batz besteko tasara hurbildu gaitzen.



- Zerbitzu gehiago pribatizatzea eragozten dituen; alderantziz, azpikontratatu diren zerbitzuak arlo publikora itzularazten dituen, gaur egungo langile azpikontratatu lanpostua bermatuz, erreferentziako herri-langileen lan-baldintzetan subrogazioa, homogeneizazioa eta homologazioa ziurtatuz, itzularazteko prozesuak dirauen artean ere bai.

- Lanpostu hutsak, ordezkpenak eta plantillen egonkortasuna aintzat hartzen duen lege bat.

- Administrazioarako sarbidea gaitasunean eta berdintasunean oinarritu behar da.

- Sarbide sistema garbiak.

6.- Zerbitzu publikoak eta bertan diharduten langileak euskaldunduko dituen.

ELA-REN ESKAERA

Guzti honegatik, ELA sindikatuak lege egitasmo hau errotik aldatuko duen negoziazio bat zabaltzea eskatzen dugu. Lege bat egin dezagun dokumentu honetan azaldutako asmoak eta aurkezturiko 200dik gora alegazioak oinarri harturik, gure gizartearen beharretara egokitua. Transparentziaz eta inposaketarik gabe.